



## KIRURGIA HANDI ANBULATORIOKO UNITATEARI (KHA) BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Programatu zaizun ebakuntza-mota kontuan hartuta, etxera egunean bertan itzuli ahal izango zarela aurreikusten da, non eta arrazoiren bat dela medio ospitalean artatzea eta zaintzea behar ez baduzu.

Ondoren agertzen diren jarraibideak irakurtzea eta betetzea garrantzitsua da.

### EBAKUNTZAREN AURRETIK

Goizez egiten badizute ebakuntza: ospitaleratu aurreko gauean 24:00 h baino lehen afari arina egitea daukazu.

Arratsaldez egiten badizute ebakuntza: 9:00 h baino lehen gosari arina egitea daukazu.

Egoera bietan, geroago ura besterik ez daukazu hartzerik.

**Ez utzi ohiko sendagaiak hartzeari, zirujauak edo anestesiolekoak kontrakoa esaten ez badizu.**

Ebakuntzaren eguneko goizean, dutxatu zaitetz, infekzio posibleak saihesteko.

Arropa erosoa ekarri. Azazkaletako esmaltea kendu, ez makillatu, ez eman hidratatzeko kremarik eta ez ekarri bitxirik.

**Norbaitek lagunduta etortzea ezinbestekoa da**, etxera joaten laguntzeko eta lehenengo 24 orduetan zurekin egoteko. Etxerako itzulera antolatuta eduki behar da (auto partikularra, taxia...)

Ebakuntza egiteko, telefonoz jakinaraziko dizkizuten egunean eta orduan agertu beharko duzu, adierazi dizuten tokian:

Txagorritxuko egoitza:

- Harrera nagusia (beheko solairuko atondoa)
- Ebakuntza-gelako atea, 1. solairua-D eremua

Santiagoko egoitza:

- Eguneko Ospitaleko harrera-A pabiloiko 2. solairua
- Harrera nagusia (beheko solairuko atondoa)

Ez ahaztu beharrezko dokumentazioa ekartzeaz:

- Ebakuntza egiteko eskaeraren dokumentua
- Osasun-txartela
- NANA

Ebakuntza-gelara sartzeko arropa emango dizugu. Gogoratu hortz-protesiak edo lentillak kentzeaz, beharrezkoa bada



## EBAKUNTZAREN ONDOREN

Alta ematen dizuten arte, erizaintzako langileek artatuko zaituzte. Errekuperazio-aldia aldakorra izaten da.

Ematen dizuten anestesia-motaren arabera, baliteke logalea edukitzea edo pixka bat zorabiatuta sentitzea. Ezingo duzu gidatu.

Anestesia nerbio blokeoarekin kasuan, hauxe gerta daiteke: etxera iristean, blokeoa ezarri zaion gorputz adarrean oraindik mugikortasunik, sentsibilitaterik edota minik ez izatea. Konturatu gabe lesioa egitea gerta dakioke ere bai. Medikuaren altaren jarraibideei kasu egitea garrantzitsua da, nahiz eta minik ez izan.

Denboraldi horretan konplikazioak sortzen baldin badira, baliteke ospitaleratuta gelditzea.

## ETXEAN

Ebakuntzaren ondoren ematen dizkizuten jarraibideak bete.

Ebakuntzaren biharamunean zurekin harremanetan jarriko dira, zure bilakaera baloratzeko.

Larrialdietara joango da eta OSAREANekin (945 20 30 20) harremanetan jarriko da antzemango balu:

- Zauriak odoljario handia.
- Bendaje estutuegiak.
- Eskuen atzamarren edo hanketako behatzen kolorearen aldaketa.
- Atzamar edo behatzen hantura, nahiz eta jasota eduki.
- Kaltetutako gorputz adarrean ahultasuna denbora luzean.
- Etengabe zorabio edo gorakoa.
- Ordu batzuk igaro ondoren pixa egiterik ez baduzu.
- Mina handiegia bada eta lasaigarriekin arintzen ez bada.
- 38,5 °C-ko edo hortik gorako sukarra baduzu.